

AHOLKULARITZA ZERBITZUA IKASTETXEETAN

Saioen zer- nolakoak

0. Sarrera

Aholkularitza saioak egiterako orduan lehenik eta behin eskaintzen den gela egokitzen saiatu gara, denontzako eserlekuak antolatu, agendak eta aurkeztuko diren liburuen zerrendak partaide guztientzako prestatu, liburu guztiak mahai gain baten atondu eta ur botila bat ondoan izan, asko hitz egin behar izaten baita denbora gutxian.

Lehenik eta behin dinamizatzailaren burua aurkeztu da eta Galtzagorriren aurkezpen txiki bat egiten da (eskola gehienetan irakasle batzuk berriak izaten dira kurtso batetik bestera).

Liburuen aukeraketak nola egin diren ere azaldu zaie, jende adituz eta interesdun ez osatutako mintegi bat martxan dagoela, urte bakoitzean irteten diren nobedade guztiei errebasoa egiteko. Aukeraketa egiterako orduan, irizpide nagusia ume eta gazteei literatura ona eskaintzea dela komentatu zaie eta horrela izanik liburu batzuen jatorria tamalez ez dela Euskal Herria, itzulpen ugari sartzen direla hautaketa horretan alegia.

Sarrerak sarrera, partaideei edozein momentutan galderaren bat badute bota dezaten animatu zaie, edo bestela bukatzerako utz ditzatela.

Liburuak fisikoki erakutsi eta editoriala zein den esan zaie.

Liburuz liburu aurrenik sinopsi txiki bat egiten zaie eta tartean aipagarriak diren gauzak gehitzen joaten dira. Batzuetan sinopsi osoa komentatu eta gero **bitxikeriei so egin** diete.

HH eta LHko 1. zikloa

1. *Hiru xerri ttipi* Ipuin ilustratua

Ipuin klasikoaren 50eko hamarkadako bertsio frantsesa. Ikas Zerbitzu pedagogikoak argitaratutako ipuina eta Iparraldeko euskara batuan idatzia.

Lehen haurtzarorako ipuin aproposa. 3 urtetik aurrerako umeek sinbolizatzen hasteko gaitasuna duten hauei izugarri gustatzen zaien ipuina.

Marraski errealistak adin honetarako egokiak gainera ilustrazioetan agertzen zaigun otsoa beste gauzekin alderatuz (txerriak, etxeak..) nabarmen handia agertzen zaigu, umeek horrela sentitzen baitute beraien barrenean otsoa, izugarri handia.

Txikiekin bakoitzak bere herriko euskalkian kontaketa komiki da. Baina LHan euskalkiak lantzen direnean, lan interesgarria izan daiteke liburu hau erabiltzea, istorioa ondo ezagutzen dute eta era honetara testuak hizkuntzaren alorrean erakusten dituen bitxikeriei arreta jar diezaiekete. Gainera atzealdean badu Cd bat non ipuina Iparraldeko ahoskera eta berbekean kontaketa duten.

2. *Ikusi-makusi baserrian* Album trokelatua

Hipotesiak bota, irudi jolasekin jolastu eta errimadun testua. Ikus efektuekin jolasten duen ipuina. Nahiz eta testua aldika ez oso aberatsa izan, aukera handiak ematen ditu umeekin jolasak eratzeko. Altxorrearren arrakasta handia duen ipuina da nonbait.

3. *Kokoriko* Album ilustratua

Umeei ipuin hau izugarri gustatzen zaie. Tentsio puntua mantentzen du, baina jasangarria da. Erasotzailea ez da otsoa, katua da eta honek umei istorioa tentsioz bada ere entzuteko aukera ematen die. Gainera azkenean txitatxoa (umea) irteten da garaile, boteretsu egiten da, beldur guztiei, amaren laguntzaz bada ere, berak egiten baitie aurre.

Osaba otsoren ipuinarekin alderatzen da. Azken honetan otsoak Karmele bere etxean jan egiten du jatuna izateagatik....ume txiki batentzat gogorregia.

Ilustrazio deigarriak, oso espresiboak testua eta irudia ondo lotuta daude.

Zer espero dezake pastel osoa jan baina erdia katuari gorde behar zion txitatxoa?

4. *Antxume tentela! Ahate txepela!* Album ilustratua

Liburu honen balioa alde pedagogiko edo hezkuntza aldetik nabarmentzen da. Agertzen diren gaiak: haserretu eta bakeak egin, kendu eta itzuli, galdu eta irabazi, aitortu eta barkamena eskatu. Istorio bakoitza partaideen ikuspuntuetatik kontatuta. Egozentrismo garaitik ondo irtenda eta bestearen azalean jartzeko gaitasuna lantzen ari diren umeentzat egokia.

Istorioan agertzen diren bi amen rola oso positiboa, umeen haserreak entzun eta kontentzioa ematen baitiote, umea epaitu gabe. Akats txiki bat topatzen zaio, ez da gizonezkorik agertzen rol hori betetzen.

Marrakzi bukolikoak, politikak.

Atzealdean hezitzaile eta gurasoentzako aholku pedagogikoak agertzen dira.

LHko maila guztientzat

5. *Harri eltzekaria* Album ilustratua

Ipuin zaharraren aldaera berria irakurketa maila ugariarekin.

Ilustrazioetan kolore kontraste handiak, horia, beltza, gorria agertzen dira sosegurik ematen ez duten koloreak. Testua ematen den erritmoan geldoa bada ere ez du lasaitasunerako tarterik uzten. Tetu eta marrazkien artean otsoaren begirada zorrotza agertzen zaigu.

Istorio irekia da. HHan irakurtzeko ez da batere gomendagarria. Ume txikiei beti istorio itxiak kontatu behar dizkiegu.

6. *Amets handi bat* Album ilustratua

Compostela saria irabazitakoa da dituen ilustrazioengatik. Izan ere oso kolorista da, argia, testu urrikoa non marrakziak protagonismo osoa hartzen badu ere testu urriak badu bere pisua.

Norbait izateko, handia izateko, oharkabean ez pasatzeko, aurretik edozer eramateko gai den krokodiloaren istorioa. Bizi dugun garaian, oso aproposa. Irakurketa maila ugari eta interpretazio askotara zabalik egongo den liburua.

7. *Ami-ami* Album ilustratua

Bi antagonista, untxi zuria eta otso beltza. Bi jarrera, bi mundu. Zer gertatuko da elkartzen direnean?

Suspense ipuina guztiz. Marrazkiek antagonista hauen inguruan informazio ugari ematen dute forma eta koloreen bitartez. Txikiei konta ezin zaien ipuin bat.

8. *Meriendatzera etorri zen tigrea* Album ilustratua

Irakurle belaunaldi asko ezagutu dituen gaur eguneko klasiko bat. 68.urtean ikusi zuen argia liburu honek ingelesez eta 2010era arte ez da euskarara itzuli.

Ezer esentziala kontatzen ez duen liburua baina hala ere mezuak botatzen dituenetariko horietakoa. Kutsu surrealista izan dezakeen ipuina. Tigre handi gosetu bat etxetik bueltaka duten ama-alabaren istorioa.

60-70. hamarkadetan ohikoak ziren arkatxak eta akuarelaz egindako ilustrazioak.

LHko 1. eta 2. zikloak

9. *Aurrera kakarrald* Album ilustratua

Auzora inozo bat iritsi da eta bertakoek bere lepotik barre galanki egingo dute. Anti-heroiaren istorioa aurkezten zaigu. Kanpotarraren ilusioekin jolasten duten bertako biztanle (zomorro) maltzurren istorioa kontatzen da. Toki jakin batean bizi direnei arrotzak egiten zaizkien ohitura eta itxurari muzin egiten dioten jarrerari buruz hitz egiten digu.

Ilustrazio deigarriak. Testuari sinesgarritasuna ematen diotenak.

10. *Ipuin-kontalariaren arbela* Ipuin ilustratua

Pello Añorgaren alter egoaren 3. abentura.

Gelako leihoa arbeltzat erabiliko duen ipuin kontalariaren zain dauden umeetariko batek kontatuko duen istorioa. Pello Añorgak ohituta gaituen hizkuntza jolasik ez da agertuko bere lan honetan. Narratzailea ume bat baita.

Istorioko bestearen barruan agerian uzten duen ipuina.

Pello eta Jokinek 25 urte baino gehiago batera lan egiteak bere fruituak agerian uzten ditu. Testuak kontatzen ez duena marrazkian azaltzen baitigu eta horrela bata besterekin dantzan, negu hotz-hotz batetan gela bero batetan hasten den istorio bat emango digute. Jokinek marrazkiekin girotu eta borobildu egiten du Pelloren testua.

11. *Hitz eta zaunka* Narrazio ilustratua

Basurde izugarri batek ehiza zakurra zaunkarik egin ezinda utzi du

Irakurketa autonomorako aproposa.

Mezu ekologistarekin bukatzen dena. Belmontek gozotasunez irudikatutako istorio barregarria.

12. *Axuri bihurria* Album ilustratua

Ardiek otsoari aurre egin zioteneko fabula.

Txikien alter egoa goraiatzeko duen istorioa. Injustua edo gogorra den egoera batean ezinduak laguntzaren garrantziaz berba egiten digun istorioa.

13. *Basoak badu sekretu bat* Album ilustratua

Album zoragarria. Elena Odriozolak lan bikaina egin du oraingoan ere. Marrazkiekin testura eta samurtasuna lortu ditu eta irudietan ere ikus efektu interesgarriak erabiltzen ditu, tarteka irudikatzen duen pertsonaiak ikusten duen paisaia marrazten baitu.

Istorioko samurra. Aholkuz beterikoa...norengeandik eta norentzako? Baliagarriak izaten al dira?

Muxarrak ez die lagunei esan nahi norekin maitemindu den.

Lotsak jota dago ala aurreiritzien beldur da?

14. *Aharrausi printzesa* Album ilustratua

Zer egin printzesak aharrausi egiteari utz diezaion? Istorioko honetan, lagunartean garrantzia azpimarratzen da.

Ilustrazioetan estapatu eta koloreek sententzioz betetzen dizkigute barrenak.

15. *Zenbakien guda* Album ilustratua
Matematika, gerraren aurkako apologia eta ipuinak elkaturik.

LHko 2. eta 3. zikloak

16. *Ehun ipuin hitz gutxitan* Liburua
Mikro-ipuin sorta Joxan Ormazabalen umore beltzezko ukituarekin. Entresakak egiteko istorioak. Egunean bat kontatzekoa. Taldeka irakurtzekoak. Heriotza agertzen da istorioetan. Oso iradokitzaileak dira.

17. *Pottoko hipermerkatuan* Liburua
Pottokoren beste abentura bat. Oraingoan saltoki erraldoien irrazionaltasuna aireratuz.
Pottoko potokoa da eta baserrian bizi da mendi artean, horrela hasten da beste behin Pellok guretzako idatzi duen Pottokoren istorio berri hau.
Hitz jolas, hizkuntzaren erabilera fina, egoeraren deskripzio ezin hobea...

18. *Iputargiak paradisu*an Narrazio ilustratua
Adan eta Ebaren biografiaren birpasa anekdota berri baten bidez

19. *Esketxak* Antzerki liburua
Dozena-erdi esketx (sainete?) proposamen.
Eskola umeekin antzerki txikiak egiteko proposa. Irakurketa dramatizatuak ere egin daitezke. Pertsonaia estereotipatuak agertzen zaizkigun esketx laburrak.

LHko 3. zikloa

20. *Sugandila-buztan zopa* Liburua
Neskatxa baten etorkizuna ikusteko ahalmen kontrolaezina. Ezagutzen e zdenaren aurrean beldurraren beldurrez, dohain bereziak dituzten pertsonenganako mesprezua erakusten duten pertsonen istorioa.
Tarteko gogorra baina espero ez dugun bukaera samurra duen istorioa.

21. *Haizearen tunela* Liburua
Hego Amerikako herrixka bat kazikeen hankapean.
Hego edo Erta-amerikan kokatu daiteken istorioa, gerrilla, gobernua eta kontrak agertzen diren horietakoa. Protagonista 8 urterekin jasoko dugu, aita kartzelan eta ama erail berri duen mutila, eta 18 bat urte dituenan utziko dugu . Euskal Herriko apaiz bat izango du lagun, besteak beste.
Irakurtzerako orduan heldutasun maila edo eta heldu bat ondoan bat behar da, ondo ulertu ahal izateko.